# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**1620**

**133/1990 DEKRETUA, maiatzaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa arautzen duen Dekretua aldatzen duena.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa arautzen duen apirilaren 12ko 107/1988 Dekretuko Gehigarrizko Xedapenetatik Laugarrenean esaten denaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde Ordezkarien eskuetan uzten da konponketa arin, euspen edo iraunerazpen obrak Sailaren izenean kontratatzeko ahalmena, azkar egitekoak direnean eta 750.000 PTAtik gorako aurrekonturik ez dutenean.

Aipatutako ahalmena Ordezkarien esku utzi zenetik jadanik bi urte igaro direnez, eta ikusirik neurri hori hartzeak aipatutako obra arin horiek egiteko, batetik erraztasunak eman eta bestetik eraginkortasun eta arintasun gehiago eskaini duela, Ordezkarien esku utzita dagoen kontratazio ahalmenak hartzen dituen era horretako obren diru kopurua eguneratu egin behar da orain, jarrita dagoen bidetik aurrera jarraitzeko.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onartu eta Jaurlaritzako Kontseiluak 1990.eko maiatzaren 15ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.–* Apirilaren 12ko 107/1988 Dekretuko Gehigarrizko Xedapenetatik laugarrenean honako hau dioen tokian: «...Zazpirehun eta Berrogeita hamar mila (750.000,–) pesetatik gora jo ez dezaten...», beste hau esan behar du: «...milioia eta bostehun mila (1.500.000 PTA) pezetatik gora jo ez dezaten...».

Gasteiz, 1990.eko maiatzak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

**1620**

**DECRETO 133/1990, de 15 de mayo, de modificación del Decreto por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.**

A tenor de la Disposición Adicional Cuarta del Decreto 107/1988, de 12 de Abril, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, la facultad de contratación, en nombre del Departamento, de obras de reparación menor, conservación o mantenimiento que demanden una pronta ejecución y cuya cuantía no sea superior a 750.000,– pesetas, se desconcentra en los Delegados Territoriales del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Transcurridos prácticamente dos años desde que se produjo la desconcentración de la referida facultad, y observándose que la adopción de tal medida ha facilitado y permitido, además, una mayor eficacia y agilidad en la ejecución de las citadas obras menores, procede ahora actualizar la cuantía de las obras de tal carácter, cuya facultad de contratación está desconcentrada, a fin de avanzar en la línea señalada.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 15 de Mayo de 1990,

DISPONGO:

*Artículo único.–* En la Disposición Adicional cuarta del Decreto 107/1988, de 12 de abril, donde dice «...cuya cuantía no sea superior a setecientas cincuenta mil (750.000) pesetas», deberá decir «...cuya cuantía no sea superior a un millón quinientas mil (1.500.000) pesetas».

Vitoria-Gasteiz, a 15 de mayo de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.